

LABek salatzen du segregazio mahaiak ez duela balio izan eskola segregazioari aurre egiteko itun soziala lortzeko

Hezkuntza Sailak prozesua baliatu du Hezkuntza Legea legitimatzeko eta bere erabakien propaganda egiteko

Urtarrila bukaeran LAB sindikatuak segregazio mahaitik alde egin genuenean adierazi genuen gure ustez ez zegoela aukerarik mahai horretan eskola segregazioari aurre egiteko beharrezkoa zen itun soziala lortzeko, ez baitzegoen baldintzarik zerbait egiten delako sentrazioa emateko sorturiko mahai horretan eztabaidatu eta akordioak lortzeko. Izan ere, segregazio mahaiak izan dituen hiru faseetan Hezkuntza Sailak aldebakarrez erabaki du zein izan diren fase bakoitzaren ondorio eta erabakiak eta metodologia bere helburuak lortzeko nahieran moldatu du, helburu bakar gisa parte hartzea zuen metodologia planteatuz.

Diagnostikoaren fasean, eragile batzuk metodologiaren inguruko kritikak plazaratu genituen eragileon ekarpenak landu eta bozkatu gabe diagnostikoa aldebakarrez onartu zutelako. Horren ondotik, Hezkuntza Sailak metodologia aldatu zuen araurik ezarri gabe, eta inprobisazioari heldu zion.

Bigarren fasean, berriz, printzipio eta balioak landu ziren eta LABek publikoki aurkeztu zuen segregazioari aurre egiteko neurrien dekalogoia eraman zuen mahaira. Fase hau ere aldebakarrez itxi zuen, inolako lotsarik gabe azaroaren 12an mahaiaren parte hartu genuen eragileok segregazioari aurre egiteko printzipio eta balioen lanketari egin genizkion ekarpenak guztiz baztertuz eta Hezkuntza Legearen printzipioak aurkeztuz ondoriotzat. Hezkuntza Sailak itxurakeriarekin jarraitu zuen.

Ezin dugu ahaztu prozesuak aurrera egitearekin batera, eragile asko izan garela metodologiarekin kritiko izan garenak eta mahaia bera utzi behar izan dugunak parte hartze errealetarako baldintzak ez egoteagatik eta adostasunak eraikitze borondate ezagatik. Hirugarren fasera, beraz, eragile gutxiagoren parte hartzearekin heldu zen mahaia. Fase honetarako Hezkuntza Sailak aurrez ezarritako 9 il-doren inguruan hitz egin dute eta gaur aurkeztu dute prozesuaren emaitza edo bukaera.

LABen iritziz azken emaitza horrek gaur gaurkoz ez dio erantzuten eskola segregazioari aurre egiteko oinarrizkoak diren hurrengo aldagaiei:

- Kuotak debekatzeko dituen dekretu bat egingo dela adierazi da. Alta, oraingoz ez da aitortu legez debekaturik dauden kuoten kobrantzen auditoretza egin behar dela, Hezkuntza Sailak dituen datu horiek eragileekin gardentasunez publiko egin behar direla eta kuotak debekatzeko planifikazioa jaso behar duela.
- Bestelako onarpen eta planifikazio dekretu bat egitearen beharra adierazi da eta gain-eskaintza dagoela aitortu. Baina ez du adierazi ikasleen onarpen eta planifikazio dekretu berriak era orokortuan D ereduko sare publikoa erdigunean jarriko duenik eta modu deszentralizatuan tokian tokian erabakiak hartzea ahalbidetuko duenik. Gain-eskaintza horretan ez du fokoa jartzen publikoak ez diren eta euskalduntzen ez duten ikaspostuen murrizketan.

- Sare publikoa sistemaren ardatza izateko, bere aldeko desoreka positiboa egin beharra eta horren aldeko planifikazioa zein neurri zehatzak ez dira jaso. LABen iritziz azpifinantzaturik dagoen egungo sare publikoa —D eredukoa— dimentsionatzeko neurriak behar dira, eta bertan Euskal Herria aitortuko duen curriculum lantzea eta orokortzea. Sare publikoa planifikazioaren ardatza izateaz gain, azpiegiturak hobetzea eta berriak sortzeko finantzazioa handitzea.
- Ituntze unibertsalarekin bukatzeko neurriak ez ditu aurreikusi. Batetik, ikastetxeak publikotzeko araudia sortzea; eta bestetik, titulartasun partekatua arakatzeko eta arautzea, izaera publikoko ikastetxeetan udalaren parte hartzea sustatuz. Horrela, finantziario publikoa jasotzen duten ikastetxeetan esku hartze publikoa legoke, udala edo mankomunitatea jabetzaren parte izanik eta kontrol publikoaren bermatzaile. Sare publiko berri bakarrerako bidean, trantsizio gisa baliatuz titularitate partekatu edo mistoko eskolak.
- Ez da jaso eskolatze orekatua eta haurren euskalduntzea bultzatzen duen Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren beharrik. Gurera etortzen diren gurasoei ez zaie behar bezalako informaziorik ematen euskalduntzearen garrantziaz eta euskalduntzeko dituzten aukerez, eta ez da neurri gisa proposatu haurrak D ereduan matrikulatzera animatzea.
- Hizkuntzagatik gertatzen den segregazioa ez da neurrien artean landu. Are gehiago, hezkuntza legeak jaso arren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean ikasleek euskaraz B2 maila eskuratu behar dutela, gaur gaurkoz eta hizkuntza ereduak mantentzen diren bitartean maila ez dute eskuratzen eta egoera hau gainditzeko neurririk ez da jaso. Horren adibiderik esanguratsuena izan da aurtengo USaP frogan (selektibitatean) A ereduko ikastetxeetako ikasleekin gertatu dena.

Gauzak horrela, gaurko egunean prozesuari bukaera eman dio Hezkuntza Sailak, oso adierazgarria izan delarik segregazio mahaia martxan jarri zutenetik prozesuak galdu dituen eragile parte hartzaileak: hezkuntza-sistemako ordezkariaren ia gehiengoa dugun sindikatuak, eskola publikoaren eragileak eta Ikastolen Elkarteak.

Bukatzeko, adierazi nahi dugu LABentzat oso larria dela, herri erronka gisa landu behar den gai honetan langileon ordezkarien gehiengoarekin adostasunak bilatu ez izana eta horretarako LABek eskatu zuen gisan, irakaskuntzako mahai sektorialetan gaia landu ez izana ere. Beraz, Hezkuntza Sailari eskatzen diogu sistemarentzat estrategikoa den gai honetan sindikatuok adostasunak lantzeko marko propioak ireki ditzala.

LAB denuncia que la mesa de segregación no ha servido para alcanzar un pacto social para hacer frente a la segregación escolar

Educación aprovecha el proceso para legitimar la Ley de Educación y hacer propaganda de sus decisiones

Cuando a finales de enero el sindicato LAB abandonamos la mesa de segregación, manifestamos que en nuestra opinión no había posibilidad de alcanzar en esa mesa el pacto social necesario para hacer frente a la segregación escolar, porque no se daban las condiciones para debatir y llegar a acuerdos, por estar preocupándose más por dar la sensación de que se hace algo. De hecho, en las tres fases que ha tenido la mesa de segregación el Departamento de Educación ha decidido unilateralmente cuáles han sido las conclusiones y decisiones de cada fase y ha adaptado la metodología a su antojo para conseguir sus objetivos, planteando como único objetivo de la metodología la participación.

En la fase de diagnóstico, algunos agentes lanzamos críticas en torno a la metodología, porque aprobaron el diagnóstico de forma unilateral, sin debatir y sin votar las aportaciones que hicimos los agentes. Tras ello, el Departamento de Educación modificó la metodología sin establecer normas y se acogió a la improvisación.

En la segunda fase se trabajaron los principios y valores y LAB presentó en la mesa un decálogo de medidas que había presentado ya públicamente. El Departamento cerró de nuevo esta fase de forma unilateral, rechazando totalmente las aportaciones que hicimos los agentes que participamos en la mesa el 12 de noviembre y presentando como conclusión los principios de la Ley de Educación. El Departamento de Educación siguió con su escenificación.

No podemos olvidar que con el avance del proceso hemos sido muchos los agentes que hemos sido críticos con la metodología y hemos tenido que abandonar la propia mesa por la falta de condiciones para la participación real y la falta de voluntad del Departamento para construir consensos. A la tercera fase, por tanto, la mesa llegó con menos participación de agentes. Para esta fase el Departamento de Educación preestableció tratar sobre 9 líneas de trabajo y hoy han presentado el resultado o final del proceso.

LAB considera que este resultado final no responde a día de hoy a las siguientes cuestiones básicas para hacer frente a la segregación escolar:

- Se ha manifestado que se va a hacer un decreto que prohíbe las cuotas. De momento, no se ha declarado la necesidad de auditar los cobros de cuotas prohibidas por ley, ni de hacer públicos de manera transparente a los agentes los datos de los que dispone el Departamento de Educación, ni de incluir la planificación de la prohibición de cuotas.
- Se señala la necesidad de elaborar un nuevo decreto de admisión y planificación y se reconoce la existencia de una sobreoferta. Pero no señala que el nuevo decreto de admisión del alumnado y planificación debe poner de forma generalizada en el centro la red pública del modelo D y debe permitir la toma de decisiones a nivel local de forma descentralizada. En esa sobreoferta no pone el foco en la reducción de plazas que no son públicas ni euskaldunizan.

- No se establece la necesidad de realizar un desequilibrio positivo a favor de la red pública como eje vertebrador del sistema, ni la planificación ni las medidas concretas a su favor. LAB considera que se necesitan medidas para dimensionar la red pública existente, la del modelo D, y elaborar y generalizar un currículo que reconozca a Euskal Herria. Además de que la red pública sea el eje de la planificación, es necesario mejorar las infraestructuras y aumentar la financiación para la creación de otras nuevas.
- No contempla medidas para acabar con la concertación universal. Por un lado, se debe crear una normativa para la publicación de los centros que no son públicos; y por otro, se debe explorar y regular la titularidad compartida, promoviendo la participación y propiedad municipal en los centros educativos de carácter público. Así, habría una intervención pública en los centros educativos que reciben financiación pública, siendo el ayuntamiento o mancomunidad parte de la propiedad y garante del control público. En la construcción de una única red pública puede ser una herramienta de transición la opción de escuelas de titularidad compartida o mixta.
- No se reconoce la necesidad de una política lingüística del Gobierno Vasco que promueva una escolarización equilibrada y la euskaldunización del alumnado. A las familias que vienen a nuestro país no se les informa adecuadamente de la importancia de la euskaldunización y de sus posibilidades de euskaldunización, ni se ha propuesto como medida animar a los niños a matricularse en el modelo D.
- No se ha abordado la segregación lingüística entre las medidas. Es más, a pesar de que la Ley de Educación establece que al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria el alumnado debe obtener el nivel B2 en euskera, a día de hoy y mientras se mantienen los modelos lingüísticos no obtienen dicho nivel y ni hay medidas para superar esta situación. El ejemplo más significativo de ello ha sido lo que ha ocurrido en la prueba PAU (selectividad) de este año con el alumnado de los centros de modelo A.

Así las cosas, a día de hoy el Departamento de Educación ha puesto fin al proceso, siendo muy significativo que la pérdida de participación de los agentes desde la puesta en marcha de la mesa de segregación: los sindicatos que tenemos la mayoría de la representación del sistema educativo, los agentes de la escuela pública e Ikastolen Elkartea.

Para finalizar, queremos señalar que para LAB es muy grave que en un tema como este, un reto de país, no se hayan buscado consensos con la mayoría de la representación de trabajadoras y trabajadores, y que para ello, tal y como pidió LAB, no se haya tratado el tema en las mesas sectoriales de educación. Por tanto, pedimos al Departamento de Educación que ponga en marcha marcos propios para trabajar y llegar a acuerdos con los sindicatos un tema tan estratégico para el sistema como es la segregación.